

atzetik ematen baitzaio olo (hala dio ere kastellanoak):

201. Zamari hilari, gibeleti olo

G.3. Besterik ere gertatzen da, eta zen, gizonetakoak irabazten joaiten zirelarik eta beren etxea egin orduko hartan nahi zuketen anderea, bitartean, hiltzen baitzen:

157. Kaiola egin denian, txoria hil

G.4. Halere gizonak ez du amor ematen bizitzeari eta eutsi egiten zaio, lotu egiten zaio zeren:

61. Athorra hurran dena, larrüa hurranago.

G.5. Norbaiten hiltzeak hutsunea uzten du, ez bakarrik jende bat gutiago delako, baina ezineriak eman dolua baitago, lurperatua gogoan:

134. Lurra xuri, gogoa beltz, hil ehortzia

Gelditzen zaigu esaera bat itzul gaitz

200. Albiriste, estakianan hobe.

zeren albiristea ez den berria, albistea, baina hilberria gaur, beraz berri txarra, nik beste leku batean itzuli nuen alderantziz ote? Garaiko zuberotar hiztegitxotan

(ik. Leizarraga) ez da hitz hori agertzen. Gaurko zubereraz **obriste**, eztei edo ehorzketa abisua da.

ELIZA-GIZON TA LEGE-GIZONEN LEKUKOTASUNAK XVII MENDEAN

Iuan de Tartas
Arlande Maitia
De Lancre
Jakes Belakoa.



XVII. mendean

Eliza gizon ta lege gizonen lekukotasunak

Iuan de Tartas
Arlande Maitia
Pierre De Lancre
Jakes Belakoa

XVII. Mendeko Zuberotar jakilegoa batzu (osasuna ta sendakuntza)

1. IUAN DE TARTAS .."ARIMA PENITENTAREN"..
Orthezen 1672. urtean argitaratua. (63. orrialdean hasten 72.eraino)

"2. Baruraz"

"Hargatik Garazuma ordenatu da primaberaren hatsarrean, zointan **gure odola berotzen baita eta samurtzen**, emaiten gure arimari mila pena (.) (63. orr.)

" Bada hanitz kausa gizona **barur egitetik eskusatz**en eta dispentzatzten dutenik Doktoren opinione komuna da, laur partean kausa hurak oro sartzen ahal direla (.) (67. orr.)

Hirurgarren kausa da **Infirmetas aetatis** adinaren infirmitatea: jende gazteak hogeitabat urte ardiets artino ez dira tenitü barur egitera zeren adin hartara heldü beno lehen denboran jan eta edan behar baitute bizitzeko, /./ **eta handitzeko**; orobat ere gauza ona eta onesta da jende gaztea, ordü honez, kostüma dadin zombait baruren egitera, amorekatik adinak dütüanean ez dezan gero ediren sobera pena.. (.) (68. orr.)

Jende **zaharra** ere dispentsatu dira, 60 urte ardietsi geroz (.) (68. orr.)

"Halakoak, ohoinkeriaz egiten du bere ohoeskea: zoinnek güti janez, güti edatez eta güti lo eginez ber gorpitza sobera aflijitzen eta tormentatzen baitü; pertsona **erriak eta flakoak** ezin egiten düalarik eta obligatü ez delarik baruraren egiteaz, hainbertze bekatü egiten du nola persona **osoak eta azkarrak**, egiten ahal düalarik, ez egiteaz (.) (71-72. orr.)

"Laugarrena da **Infirmetas conditionis**, noiz ere emazte bat **izorra** baita edo **ünhüde** esküsa lejitimo dü barurik ez egiteko, baina ez dü esküsarik bianden kalitatean, erran nahi baita barurik ez eginik ere, bijiliak behar dütüala begiratü (.) (72. orr.)

"Senarra eta emaztea ere esküsatzen dira baruretik ezkontzearen kargüak ezin egarten badira eta batak bertzeari ezin errendatzen baditü **bere eginbideak** (.) (104. orr.)

Hemen, barurak aipatzean osasunaren aldetik Elizak nola sailkatzen dituen eta Tartas-ek nola zuzenenesten dispentsak, garaiko osasunaren kategoriak ematen dizkigu euskaraz:

- gazteak: hogeitabat urtez petik
- zaharrak: hirurogei urteez goiti
- erriak eta flakoak: gaixoak eta ahulak
- emazte izorra ta ünudeak
- ezkonduak, beren eginbideen betetzeko.

Beste gauza jakingarria da zergatik, Udaberrian behar den barur egin ez erlijio arrazoien gatik, baina "odola berotzen baita eta samurtzen".

Oraingo etxekandere batü, 68. urteetakoa galdetu nio-
nean ba ote zekian noiz egiten ziren zainebakitzeak, san-
gratzeak? Harek bereala Udaberrian esan zidan odola garai
hartan berotzen baita. Odol berotze hori izango sistema sin-
patikoen eraginaz tentsioa, orduan aldatzen baita. Beraz

barurak, odol kentzearen eragin berdina zukean, Elizak Barbergoarri kalte eginaz? Egia da "odol-kolpea" apoplexiak jendeari Zuberoan bildur ematen ziola, orduan eta geroztik ere.

Gosea ere aipatzen da Tartas-en liburuan eta lapurketa txuripen moduan, gainera:

"Gosez hilzera doana bazka ezak eta ez badük bazkatzten hil dük. Hargatik S. Tomasek dio "nezessitatearen artikülüan hartan, permis dela fraide bati ebastera, pobrearen salbatzeko" (100. orr.)

Eta nola gure lagunaren miseriak baitira bi suertetako, korporalak..

1. Gose direnen bazkatzea (eginbide)
2. Egarri direnen edaten emaita (eginbide)
3. Buluzgorri direner estalki emaita (eginbide)
4. Kaptiboen erostea
5. Erien eta presoneren bisitatzea
6. Pelegrien eta erromesen ostalatztea
7. Hillen ehorztea. (91. orr.)

Zazpi eginbide horietan bost osasun ta medikuntzarekin egitekoa daukate, gauza horietan erlijio monoteisteetan gertatzen den bezala biak karitateari lotuak bait daude, eta gaur errepublika laikoetan ere osasunarentzat eskea daude kalear, eta plazetan.

2. MAITIA-REN "PRONUS DIEBUS DOMINICIS", 1676. urtean

Obra hori hasten da ordenantza batekin eta Zuberoan berriki gertatu azken sorgin hauzi eta basa-medikuntzaren kondenen ondotik, Oloroneko apezpikuak (Zuberoa orduan Oloronen jarri baitzuten) honela dio:

"Azkenekoz gure Jaun apezküpüaren poterez eskümikatü dira:

1. Majizien, belagile, enkantatzeko, azti, estekazale eta heetara hersatzen direnak dakielarik debrüarekin pakto egiten düela jakinez geroz bekatü handi bat dela

8. Haurren, urtea beno lehen berekin eratzaleak itotzen badira.

Lehenbizikoan gogoratzen du gaixo izanikan ere zerbait aztikeria delarik medikuntzari buruz: azti, belagile, estekazale eskomulgatuak direla jendeak.

Zortzigarrenak haur eriotza batzuen kausa ematen digu, alegia urtea baino lehen, ohitura txarrez, haurrak gurasoen ohean etzanerazten direla eta hola itotzen. Ohituraren etxe-ohitura kaltegarri horren galerazteko eskomulgatzen da.

3. SENDATZAILE / SORGIN MUGAPEN BATEN BILA: DE LANCRE-REN ZEHAZTAPENAK.

3.1. Lehen saiklapena, sendagilletzaz (itzulpena) (V. liburua, lehen mintzaldia)

Sineskeria otoitz, gutun eta beste debekatutako bidez sendaketak egiteaz. Eta konzientzia sanoz zilegi denez Sorgin bati eskatzea eman duen gaitza, ateratu dezan.

"Aintziñateko Filosofo askok, munduko gauza ta izaki guztietan izpirituak zeudela sinetsi baitute eta ixtripuz, uste

gabez edo berez gertatzen zirenak, konkordiaren edo diskordiaren handik zetozela eta hortan behar zuela fidantxa edo ez fidantxa kokatu. Hortan nola Asklepiadesek, doktor handiak zion medikuntza baten osatzeko elkarri lotu behar zirela ondoko elementu desberdinak:

- idazlearen gogoia, idaztearekin
- sendagilearen gogoia errezeta ematearekin
- apotikariarena, errezeta egitearekin
- erriaren gogoia, sendotuko duela sinistarekin baita bere lagun duen gorputza hartzera moldatuz, ere.

"Hori gaineratzen zion, belarren ekaiak eta beste sendagailuneak, nahasirik eta baturik, erriaren gorputzean sartzearekin, **izpiritu gaistoak** ohiltzen eta kanporatzen dituztela, horiek baitira beren diskordantzia mina sortzen zutenak ta halaxe (sendagailuek) **izpiritu onak** birsartzen zituen, elkarrekin hain ondo toparatzen nola adosten baitziren., eroari osasuna birematez.

"Arren, izpirituaren diskordantzia horrek sendagileei gure sendatzea zailagotzen ba diete, (eria ezin delarik nahi duenean hil), bai, berezko kausa ta eragin bidez gaixoari osasuna itzul lezaioke, bere borondatearen aurka balitz ere. Ezen gaixo askok sendagilea ixterbegia bezala ikusten baitute: ezinagozkoa izango zaio eri bat sendotzea Sorginari, berek begizkoz edo berez gaixotua zentzudun baldin bada eta inganio, etsipen, gezurkeria baizik ez duena: itxaroten, sendagile ta erremedioez; Sorginek Satanarekin baizik pentsaketatu eta aholkatu, zentzugabeko sendagailuekin erremediatzen dituztelarik jendeak.

"Lehenik hitzegingo dut sorgin majiaegile, enkantazaleez, enpirikoarena, sendagilearena egiten dutenak, ezinezko sendaketetan abiatzen direnak, zentzugabeko medio harrigarrienez. Gero beren sendagailuen ezdeuseria aipatuko dugu, eta osoki Satani mailegatuak direla erakutsiko: eta horregatik, konzientzia sanoz ezin daitekela haiei arrima, Jainkoaren hasarrea, eta giza ta jainko legeen gaitzigua, zigorra irabazi gabe.

"Menturaz esango didate nere elea orokorregi dela, Jainkoak ez duela belar, landare, ta medikuntza arau ta axioma batzuei bakarrik lotu eta bakarrik Fakultatean ikasi dutenen gandik eguruki behar dela. Eta zozokeria dela, Satanek edo haren kide batek Jainkoaren baimenez, emandako gaitz, arrunt ez dena medikuntza arrunt batez sendatu nahia.

"Hori dena ta beste irudikoek, beste antzekoek **zenbakietara mugaturik**, zedarriturik, gehiegikeriaz eta sineskeriaz kanpo, arau hori eskatzen eta erakusten dieten maisu baten bat dagoela. Halaxen jainkotiar itxura daukaten gauzez balliatu nahi bada, beti asmo sano ta on batez lagundu behar dira, eta sineskeria kutsu ta susmo guztietatik garbitzeko erabili eta egin behar dira **sine fiducia in materia, forma et numero** eta nori zuzenduak, norengandik hartuak diren jakin. (.)

"Hieroglifo antzean **dort** hizki ezin ulertu ezezagun, itxura bitxian zirriborrotuak dagokienez, izen basatiz eratutako, hitz berri ulertu ezinez egindako gutunez bezainbatean ere; bai, sendagailu arrunt eta berezkoengandik urruntzen diren errezeta guztiak

sator hezur, saguxar hego, apoburutik atera harria, urkabe zur zatia, hil baten gona hukitutako orratza, berriki zintzilatatu ta urkatu lapur baten burezurrare-

kin egindako hautsa, sator begiak, hil ondoren baizik agertzen ez omen direnak, Doneskainik egiten ez den Ostegun Sainduan emandako eliza saria, herrian aurkitu ohi ez diren belarrak, aurkitzen badira neskatilla birjina batek Donibane gauan bilduak gauaren mianean eta moeta askotako drogaz egindako kandelaz bere burua argitzen duelarik.

"Sineskeria egingaitz guzti horiek, eta ezinegin direnak gehienak, deabruzko jakinmin batera garamatzi ezin aurkituz, ez baitaude, ta Deabruak hutsune hori betetzen du, emanaz ta gure jakinminaz, arima arrikkutan jarriz.

"Eta ustekeriak, adiskidantza edo ixterbegitasunak ezin dezakeala errezeta on baten eragina oztopa eta bestalde Jainkoaren bedeinkapenez jende batzuek sendatzeko dohaina daukatela, bazter utzirik sendaketa emateko daukaten arrazoia eta hori ehun mila adibidez erakusten digu.

- Ezin dela ukatu gangailenak, "gohenezurrak" zazpigarren jaiotako semeak sendatzen dituela nola ezkontanai bati egiten ikusi diodan gisa. (sic)
- Eta posthumus haurrak larruko babak eta otsoak senda detzazkela. (.)

"Beraz ez naiz mintzatu nahi, sortzez Jainkoak eman dizkieten dohaindu horietaz (ez dakit nolaz duten, non ez den Guztiz Ahaltzuaren grazia bat) ez eta beren bizi sainduaren gatik eta Elizak zilegi uzten dituen otoiitzekin minak sendatzen dituztenak.

"Baina, ez bakarrik iruzurti, baina majjaegile, enkantazale ta sorgin edukitzen ditut beste jende batzu: beren alegiazko sines zaletasuna, beren neurtutako hitzak, beren gogara landu otoiitzak, beren barurak, ganoragabeko bereen erremedioak, kristau on guztiari dena susmagarri izan behar du. (.)

Lehen zatiari oharrak.

Asko ikasia den De Lancre epaikaria oraindik Aintzinateko ideiekin bizi da, beraz ez da harrigarri herri-sendakuntzan holako kategoriak aurkitzea, nahiz herriak "imur" esan ez "izpiritu" gaitzaren kausa bezala. Halere, guretzat, bitxi den nahasketa batean "modernotasunaren" asmoak eta definizioak De Lancre-ren lumapetik irten dira, sineskortasun handi batekin batean.

Lehen parrafoetan sendagile moeta bakoitzaren zeregina mugatzen du, deontologia orokor ta gaurkotasunezkoa dirudienean.

Bigarren parrafoan, ordea, izpiritu gaisto ta onen teoria onartzen du erdizka, Asklepiades-en diskordantzia / kondordantzia teoria hedatuz.

Hirugarren parrafoan sorgin-sendazailleen erremedioak baztertzeo arrazoin nagusi bezala, Satanek inspiratuak direla da, eta beren konposaketa harrigarriak ere susmagarri direlako.

Laugarrenean arrazoinketa jarraituz, herri sendakuntzaren aldeko, ta sendazaleen aldekoak ez ditu baztertzen, fakultatetako sendagileez kanpo dauden sendazale herrikoiak edo beste aipatuz. Halere ez du uste Sorginek emandako gaitza (begizkoan sinesten baitu.) sorginak sendatu behar duela.

Bostgarrenean, medikuak ezin badu, badirela sendazale sanoak dio, prakadun dohainduak eta saindutasunez ta

Eliza otoiitzez, sorginkeriak senda detzazketenak. Horiek ez ditu kondenatzen eta berak ikusitako adibideak ematen.

Gero seigarren pondu batean denak bilduz dio sorgin sendazaleek, benetakoak eta elizagizonak, kristau onak iha-kinztatzen dituztela beren, jokaerak hartuz, iruzurtuz: ez digu esaten nola bereizi bi kategoria, ez eta erremedio ekaien berri.

3.2. Sorgin sendatzaileez xehetasunak.

Zatika, han hor, De Lancre-k Bordeleko legebarrutian bildutako sorgin-sendatzaileen errezetaren bat ematen digu, bere sailkapenen balioa erakusteko ta forogatzeko.

"Les Saludadores .Saludadoreak (sic) Españañan ez dute ezer hartzen eta dohainik sendatzen dute: ezen sendatzen dituztenen **arimak** Satan beren buruzagiarekin hautsimautsitak askiesten baitira, gero beren nagusi Satanari emaitza egiteko, dakitelarik larru-zorroa zabalik eta karitatez operatzea irudiarazten duenarengana jendea lasterka doala ". (.)

Ez medikuek, ez filosofoek ez iñork argi dezakean zerbait badago beti oker doana, azti ta sorginen sendaketan:

- Horrenbeste egunez barur egin,
- horrenbeste argizai erre
- horrenbeste Aita Gurea
- horrenbeste errosario
- horrenbeste erremusina,
- horrenbeste "aitaren" egin.

3.3. gure oharrak.

Aurreko "corpus" hortan De Lancre-k gero arrazionaltasunaren azterketa berdina egiten du baina, lehen puntu batean "sendaturik izatea arima Satani emanaz" nonbait Euskal Herrian entzuna, Axularren itzalaren ipuina agertzen da, ez sendatzeko baina ikasketen Salamankara joan gabe egiteko. Ezinezkoa lortzen hala nola Faust-ek gaztetasuna - arima deabruari edo demonioei eman behar delako sinestea munduan oso zabala da. Kristautasunaren aurrekoa?

Bigarren pundua da, benetan oraindik ere herrian herri-sendakuntza erdi-sorginean zenbakiak garrantzia daukala, txingola sendatzen dela bederatziraino kontatuz eta gero atzera, etenduraz sendatzeko hirur Aita Gurea edo bat esan behar dela baina gure gaia ez baita bakarrik medikuntzaren giroko sinesteak, eta Azkuek eta Joxe Miel Barandiaranek horiek bildu dituztelako bakarrik hemen agertzen zaiku, guk oso sendazale "ezti" ikusten ditugunak garaian "sorgin" ikusiak zirela.

Hirugarren punduan "gutunen" aipamena oso zehatz ta garrantzitsua da ezen mende hontaraino itsasaldean (Lapurdi Gipuzkoan baitzerabilzkiten), gero, hemeretzigarren mendean, Zuberoan berriz apezek aspaldixkan eskapularioa sartu zuten horien lekuan.

Laugarren punduan agertzen diren sorgin eta azti sendagailuak, Europa guztiko animista sendakuntzan agertzen dira, horietatik ez da gauza handirik gelditzen ez bada, mende hasieran Donibane gauan edo goizean sendabelar asko biltzen zela, baina aipatzen ez dituen asko bizirik diraute.

Gehiegi ez luzatzearen gai horrekin, geroago urrunago eta beti bostgarren liburuan, lehen hitzaldian De Lancre-k dio eta hobeki zehazten sendazale / sorgin desberdintasuna gaurkoentzat balio duena

1. Sorginak kalte egin lezake begizkoa bota lezake.
2. Sorginak senda lezake jende batetik bestera gaitza igaro araziz.

Errez lizateke pentsatzea nor ez den batere Sorgin eta Elizako otoitzak eskatzea, baina bere garaian, Baionako apezpikua ta Oloronekoak idatziz egindakoeak erakusten digute apezak sendabelarretara emanak zirela, debekua izan arren, eta De Lancre-k uste du apezak ere Euskal Herrian sorgin direla.

Txunditzen duena da, hola medikuntza ona hain garbiki erakusten diguna zein den, gizon jakintsu horrek epaikari honek, sinesten duela norbait benetan Larrun mendi gainetik Donibane Lohitzuneko itsas hondartzara jauzi egin dezakeela, sorgina delako anderea. Lasalki deabruaren agerpenez Bordelen, ta gizon batek nola deabruarekin hegan egin zuen teillatu batera tximineatik sartu tximineatik ateratu haur bati kalte egiteko (Bigarren liburuan).

Hamazazpigarren mende hortan hain sineskor izateak ez gaitu harritu beharrik Berpizkundea igaro arren, oraindikan gaurko Jakintza ta bere Arrazionaltasuna abiatzekoa da.

Egia da positibista eskolek eraginik fakultatetako sendagileek beren legetasunaren zuzenesteko ziotela, eta oraindik batzuk diote, berak argiak direla eta ezin ulertu ditekenez sendaketa mota guztia ilunbea ta txarlatankeria. Horiak zorro berean: medikuntza berri, sendaketa ezti, herri-sendagintza ta baratari batzuen trapuzak; denetzat diote diruzalatasunak bultzatuak direla - eta geronek ikusi dugu ez dela batere egia - eta jenderen osasunaren kalteetan lan egiten dutela, eza-xolaz uzten direla lanean aritzen. Beraz, horien arauera, arrazoinaren errespetatzeko, legezko sendabideak agortu ondoren eta antzu gertatu ondoren, minarekin eta eriotzbidearekin jarraitu behar lirerateke, sasi-medikuetara joan gabe.

Benetan Frantzia jakituriak baino gehiago balio du diplomak, gaitzenez "astolarru" deritzaiona eta Iparraldean frantses eskolatik igarotakoek; halaxe garai batean Frantzia belar-sendagile diploma zegoenean ez zen sasi-medikuntzarik baina apotekariaren lobby indartsuak gaizki ikusirik ta monopolioaren osatzeko galerazi zuten. Emaginak doidoia ere salbatu dira baina ez luzarorako, ofizioa galtzen ari baita Frantzia, fakultatetan erakatsia baizik ez bait da legezko "sasi-medikuntza" jakitate daukatenek aterabide bakarra daukate, fisioterapia, medikuntza apotekari ofizioak ikasi haizitegiatara joan gabe, bakean sendalanaren egiteko, denbora berean jakintzatasun lausoko homeopatia zilegi delarik.

4. ZUBEROAKO FORUAN OSASUNA, JAKES BELAKOAREN ARAUERA.

- Zauriez -

Jakes Bela-koak **Zuberoako Foruari** egin iruzkinean eta legezko diren arazoak aipatzen dituelarik, hauzitara joaiten zirenak ditu gehienak eta hain zuzen, bere XVII. mende gaitz hartan jendeen artean borrokaz egiten ziren "zauriez" hona zer dion, guk euskaraz emana:

"Zauria, hitz hau hartua da norbaitek ukaldiz edo ebake-taz egindakoa adierazteko zeren horietatik gaitz eta minak

baitatoz. Ezku-agerian diren **Zauri haundi** edo lege haundi-koak hala seinalatua dira alde batetik, besteak direlarik, **esku-gordez**, eskualtegilere ta tranpaz eginak, beste gisaz "paroents" zauriak.

"Hauskurez kanpo badira besteak, uspel, odolbatu, haunditsu, hankura, nahiz zuzenki eskuz, nahiz ez zuzenki ukaldiak pertsonaren gainean emanaz. Halaber, badaude kontra-ukaldiak (ez ukaldi ondokoak) gorputzaren aurkientza batzutan gerta ditezkeenak, hala buruan. Hainbestean zauri horren alboan, saihetsean jotzen baldin bada, mina senda daiteke edo sortzen horren bideez, hukitu aurkientza hori baino urrunago eta horren bestaldean hala nola ontzi huts eta ekai bakoitzean, osoki berinez lurrez edo besteez egina, leku batean jo bada astinduraren beste aldean da egiten hauskura delako ontzian. Hori egiten da, hutsunea dagoen sakonean aireak ez duelako uzten beste lekuri inarostera bihurtzen dela, eta bortizki atzeratuz hauskura beste leku batera zuzentzen duela, halaxe ontzia, halaxe menbroa lur hetsi ta ekaibatekoa bezala dena.

"Halaber beso, izter baten haragi-larruak osorik gelditzen direlarik barruko aldetik hautsi ta apurtu diteke. Halaere kanpoan darakuske barruko hautsia, baina kausen jakiteak gertatuaren ulertzen lagunt gantzazke".

XIII. art. Legezko zauriaz

"Legezko zauria hauxe da, barberoek neurriak hartzekotan diotena luzean ontza batekoa edo kana bostgarrena dio Biarnoko foruak. Neurtzeko lau zatitan, lau aldiz egin behar da erditan zulo txuri bat utziz. Zauria epaitua izateko lege haundizko, lealtasunezko hartzen delarik, marka luze hori burutik buru lau atzekoa bada erditan lekuko gisa eratxeki behar zerbait txuri eta neurtu ondoren neurketa guztiak gehitu.. Zuri edo lekuko hori pasta, ore, argizai edo holako izan diteke".

XVI. art. Maltzurkeriaz gizon batek bestea zauritzen duelarik.

Maltzurkeriaz norbaitek bestea zauritzen duelarik eta non ez den bere buruaren babesteko, Lextarreko Kortearen epaimenez, zauritzaileak gastuak zaurituari eta barberoari ordaindu behar dizkiete.

Halaber ohartzekoa, aurretik, aitzinetik eman dena ez dela kontutan hartuko, orozbatekoa, behin betirakoa egitean. Erren geldituko den gaixoari, eta betirako duelarik elbarritasuna, iraintzaileak halatan eman behar baitio janpidea, bizi guztirako.

Medikuntzak gogora ekarritako metaforak erabiltzen ditu Jakes Belakoak eta sendakuntzari buruz XVII. mendean ziren aburu ta usteak hor agertzen zaizkigu

"Hobe da gaitzaren prebentzioz aurrea hartzea eragozteko, ezen ez eta etorrita dagokeneko kentzeko erremedioak itxarotea".

Gaurko segurantzaren defizit askoren erremedio ta sendagailua ez ote liteke zuzentzia zahar horren erabiltzea, alde aurretiko neurriak, sendaketak baino merkeago liratelakoa, baina hortarako mentalitateak, erremedioei buruz ez dira aldatu, gaur ere guttiago jatea erabaki baino, askok gaizki daudenean sendagailuaren itxaropena eta sinestea baitute.

"Lege haundizko zauriak bi gisatakoak izan litezke, batak zabalik eta eginberriak, edo zahartuak, ustelduak, uderra eginik, sorne edo odol ustela dariotenak, eta ezpata ukaldiz, sakon eta zabal saihetsean legeak dion neurriko ta luzetasu-nekoa.

Bigarrena da zauri zerratua, hetsia, itsua eta halakoxeak dira azote, haga eta besteren ukaldikoeak emana eta ezagunenak dira beren orbain, ubel, uspel, belztasunetik, bai eta kontra-ukaldi horiek ere kalamitate edo helgaitz izendatuak (XVII.artikulua, 333)"

Jarraitzen du luzaz Bela-k esaten bi zauri motak ez direla legearen aldetik berdin zauritua ordaintzeko orduan, eta desberdintasuna haundiago dela desleialtasunez zauritu denean jendea.

Sendakuntzarekin zuzenki ikustekorik ez duten arren, zauritua eta zauritzailea auzietara behar dutenean, aurretik leku bereizi batzuetarako eliza ta ermitetara zin egitera jo behar dutela:

"Mauletik behera dauden herrientzat Arübeko Doneztebe elizara Arbaillakoentzako Idaunzeko Jon Done Petirin, Zuberoa soberanokoentzat Zibozeko San Martinen, baina Lextarre (Maule ondoko) Korteak nahi izan ezkeru, lege zin hori bere Lextarreko Donibane ermitan har dezake, Korte erabakiren baten arauera.

"Zin hau lotua dago eta bereziki aipatu kasuetan (leialak eta lege haundikoak) kasuetan zauritzailea, kolpatazalea ta zauritua beren zinetan sinetsiak direlarik" (XX. art. edo 336.)

Ohitura horren jatorria bitxia dirudi:

"Badirudi zin egiteko ohitura hori ta kasu kortarakoa Egiptotik ateratu zela". (XX. art. edo 336.)

Foruaren uzta xuhur honi hau bakarrik gainera genezake, legehauste zena:

"Arau honek, gorago esan dudana, sendotzen du, gure foruak horniduretz diona eta hedatzen dena **eri ta behartsu direnei esnea** ukatu dietenei herrian bizi direnen hazkurri (art.111 edo 127)"

Horiek guztiek erakusten dutena Osakidetza garai hailetan osoki Elizaren bizkar zegoela, behartsuak sendatu behar zirenean, asko oraindik ere Frantzian behintzat kaletan egiten diren eskeak Karitate zahar horren ondokoa izan; forua bakarrik, hauzietara joan zitekean borroka zauria kontutan hartzen zuen gehienbat".

2. Zauriaren ordaintsaria, Bela-ren arauera.

"Ohitura zaharrez, hogei sos, hogei Morlas-eko sosen ordaintzeko zina, Arübeko Jon Donezteben elizan egin behar dute Mauletik iparraldean bizi direnak, Idaunzeko Jon Done Petirin Arbaillakoek, Zuberoa betekoek Zibozeko Jon Done Martiñen, baina Leixtarre-ko hauzitegiak bere Leixtarreko Donibane kaperan har detzazke hola erabaki baldin badu" (216. orr.)

3. Zuberoako foruaren aipamen batez iruzkin bitxia: gizaragi jaleak.

"giza haragia jaten dutenak basati hutsak dira, jainkoaren ezagutzik gabekoak. Ongi bizitu diren jendeen gorpuek, mortes justae sepulture tradentur ne corpora aut ossa eorum

detineantur aut vexenter, zeren mundu hontako gauzak gizon bizientzat badira zentzugabekeria lizateke hil ondoren bere irudiko gizonen bazka izan ledin (370. orr.)

3. Sendagileen erantzunbehar ta berengaintasunaz, hauzigai ditekian ezaugarriaz.

"Beharrunearentzat da medikua esan nahi baita, beharrezko ta behargarri dituen gauzen gainean poterea daukala, aipatutako zauri edo gaitz baten sendatzeko. Medikuak oker ezagutu badu edo gaitza ez ezagutu epaileak (sic) ogena zuzendu dezake.


4. Moralazko aipamen batean sendakuntzazko irudi ona.

"Hobe da gaitzari oztopo ta eragozpen egiteko aurea hartzea ezen ez etorriko denean erremedio bat itxarotea gaitz haren kentzeko"

Egia ederra baina gaurko sendakuntzan - garestiegiz - aplikatzen ez dena.

XVIII. MENDEKO ZUBEROTAR IRRI-ANTZERKI: ASTOLASTER BATZUTAN

Sendagin eta sendakuntza, asto-lasterretan.



HERRI SENDAKUNTZAREN LEKUKOTASUN TA IRITZI

Zubereraz badaude, dozena bat astolaster frantses iraultza baino lehen eginak. Horien komika baliapideak "frantses esaera erabiltzekotan "gerritik beherakoak" izanki, holaxen medikuntzaren, garaiko erakuspenak, baditugu, bost ekintzentzat behintzat: aiuta, sangratzea, haur sortzea, haur galeraztea, baztanga ta txertatzea.

Lehenbiziko bi ekintzak parre eragiteko erabiliak dira, gero haur sortzeak edo izorra izateak irri-parretxoa eginarazten badu, haur galeraztea oso gaizki ikusia da: astolaster bat